



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2011IPLE0007

**Eguna:** 2011-05-12

**Ordua:** 12:00-12.50

**Tokia:** Areto nagusia

#### Bertaratuak

- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	HAMAİKABAT
- Juan Joxe Uranga Mendiburu	HAMAİKABAT
- Imanol Lizarralde Marín	HAMAİKABAT
- Eloy Bazan Bazan	HAMAİKABAT
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ/PNV
- M <sup>a</sup> Jesús Arruabarrena Izagirre	EAJ/PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ/PNV
- Carlos de la Peña Hornés	Atxiki gabeko taldea

#### Bertaratu ez direnak

- David Franco Chavale	EB-B
------------------------	------

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N <sup>o</sup>	ORDEN DEL DIA
2011ko apirilaren 20ko aktaren onarpena	1	Aprobación del acta de 20 de abril de 2011
Astigarraga Lantzen, S.A. – 2010eko kitapenaren onarpena jakinaraztea	2	Astigarraga Lantzen, S.A. – Dar cuenta de la liquidación del ejercicio 2010
2011ko Aurrekontu Orokorren hasierako onarpena	3	Aprobación inicial Presupuesto General 2011
Lokal komertzialak etxebizitzetan bihurtzeko udal ordenantza: alegazioak ebaztea	4	Ordenanza municipal para conversión de locales comerciales en viviendas: resolución de alegaciones



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### Esan-eginak eta erabakiak

#### 1. 2011ko apirilaren 20ko aktaren onarpena

3. puntuak 2 puntu biltzen zituen, 3.1 eta 3.2 alegia, eta PSE-EE taldeko zinegotziak adierazi duenez, bi puntuak modu orokorrean bozkatu baziren ere, 3.1 puntuaren kasuan bere jarrera abstentziozkoa zen, eta 3.2 puntuaren kasuan, aurkako jarrera zuen.

Xehetasun horrekin, aldeko 9 botorekin eta Carlos de la Peña jaunaren abstentzioarekin, akta onartu egin da.

#### 1. Aprobación del acta de 20 de abril de 2.011

En relación al punto 3º, señala el concejal del PSE-EE, que incluía 2 puntos el 3.1 y 3.2 que si bien se votó en su globalidad, con el punto 3.1 su postura era de abstención y con el 3.2 en contra.

Con esta matización con 9 votos a favor y la abstención de Carlos de la Peña se aprueba dicha acta.

#### 2. Astigarraga Lantzen, S.A. – 2010eko kitapenaren onarpena jakinaraztea

Alkateak, 2011ko apirilaren 20ko 332/2011 Dekretuaren bidez ebatzi duen Astigarraga Lantzen, S.A. elkartearen 2010eko likidapenaren onarpena Udal osoko bilkurari jakinaraztea.

PSE-EE taldeko zinegotziak gogoratu du Astigarraga Lantzen SA enpresaren ekitaldia 202.563 euroko galerekin amaitu dela, eta 2009ko galerak 395.707 euroraino iritsi ziren. Horrek esan nahi du, era berean, aurten kreditura jo duela.

Ogasun Batzordeko presidentek adierazi du alderdi horiek batzordean aztertu zirela.

#### 2. Astigarraga Lantzen, S.A. – Dar cuenta de la liquidación del ejercicio 2010

La Alcaldía da cuenta al Pleno del Ayuntamiento de la aprobación de la liquidación del ejercicio 2010 de Astigarraga Lantzen, S.A. realizada por el Alcalde a través del Decreto 332/2011 de 20 de abril de 2011.

El concejal del PSE-EE recuerda que el ejercicio de Astigarraga Lantzen SA, ha finalizado con pérdidas de 202.563€ y las pérdidas del 2009 ascendieron a 395.707€, indicando además que durante este año ha apelado al crédito.

El presidente de la Comisión de Hacienda señala que estos aspectos fueron analizados en la comisión.

#### 3. 2011ko Aurrekontu Orokorraren hasierako onarpena

Alkateak Ogasun Batzordearen irizpena

#### 3. Aprobación inicial Presupuesto General 2011

El Alcalde presenta el dictamen de la



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

aurkeztu du. Irizpen horretan honako Comisión de Hacienda donde se propone akordio hauek hartzea proposatzen da: la adopción de los siguientes acuerdos:

1. 7.061.281,36 euroko Udaleko Aurrekontua eta 124.989,80 euroko Astigarraga Lantzen, S.A. elkarteko Aurrekontuek osatzen duten 7.186.271,16 euroko Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena ematea.
  2. 2011ko plantila eta lanpostu zerrenda onartzea.
  3. Aurrekontua osatzen duten aurrekontua gauzatzeko arauak onartzea.
  4. 21/2003 Foru Arauak agintzen duen arabera, Udal Aurrekontua eta osatzen duten dokumentuek jendaurrean jartzea. Alegaziorik egon ezean, Aurrekontua, inongo erabakiren beharrik gabe, behin betirako onartua geldituko da.
1. Proceder a la aprobación inicial del Presupuesto General 2011 de 7.186.271,16 euros, correspondiendo 7.061.281,36 euros al Presupuesto del Ayuntamiento Propio y 124.989,80 al Presupuesto de Astigarraga Lantzen, S.A.
  2. Proceder a la aprobación de la plantilla y RPT 2011.
  3. Proceder a la aprobación de las Normas municipales de ejecución presupuestaria que integran el Presupuesto.
  4. Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 21/2003, someter a información pública el acuerdo de aprobación del Presupuesto Municipal y documentos que lo integran, reseñando que caso de no formularse alegaciones quedará aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

**Bozketa egin ondoren, irizpena onartu da, aldeko 8 botorekin (4 Hamaikabat, 3 EAJ/PNV, 1 PP), eta aurkako 2 botorekin (1 PSE-EE eta 1 ez atxikia).**

Bozketaren azalpenean, honako zinegotzi hauek eman dute beren iritzia:

Jose Angel Sanchez (PSE-EE): Aurrekontuak berandu egin dira, urrian aurkeztu behar izan baitziren, gaizki, eta oportunitate politikoa kritikatzeko du, hurrengo korporazioak onartu ez duen aurrekontu bat kudeatu behar izango baitu. Aurrekontuari dagokionez, gauza desberdinak adierazi ditu handitzen den gastu korronteari buruz, diru-laguntzak eraginpean hartzen dituzten murrizketei

**Sometido a votación el dictamen es aprobado con 8 votos a favor (4 Hamaikabat, 3 EAJ/PNV, 1 PP), y 2 votos en contra ( 1 PSE-EE y 1 No adscrito)**

Dentro de la explicación de voto se pronuncian los siguientes concejales:

Jose Angel Sanchez (PSE-EE): Los presupuestos se han realizado tarde, dado que se tenían que haber presentado en octubre, mal y critica el oportunitate político dado la próxima corporación va a tener que gestionar un presupuesto que no ha aprobado. En cuanto al presupuesto formula distintas apreciaciones relativas al gasto corriente que aumenta, a los recortes



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

buruz –Musika eskolaren kasuan izan ezik, handitu egiten baita–, eta sortutako aurrezki garbi urria aipatu du. que afectan a las subvenciones, alvo la “Musika eskola” que aumenta, y señala el ahorro neto escaso que se genera.

Atxiki gabeko zinegotzia: adierazi du aurrekontuaren zirriborroa egina utzi beharko litzatekeela, eta ez hurrengo korporazioarentzako aurrekontu bat. Aurrekontuaren egikaritze-maila hobetu dela adierazi du, baina baita kalkuluak ez direla zuzenak ere, eta ez die bere oniritzia ematen. El concejal No adscrito: señala que se debería dejar hecho el borrador de presupuesto y no un presupuesto para la próxima corporación. Señala que se mejora en el nivel de ejecución del presupuesto pero que no son reales las estimaciones y no les da el visto bueno.

PPko zinegotzia: adierazi duenez, irteten den udal gisa gure betebeharra da gobernatzea, horregatik egin eta onartu behar dugu aurrekontua, eta beste korporazio bat etortzen bada, lan egiteko dokumentua izango du, eta aldatu nahi badu, aldatu ahal izango du. El concejal del PP: señala como ayuntamiento saliente tenemos la obligación de gobernar por eso se debe de hacer y aprobar el presupuesto y si viene otra corporación tendrá el documento para trabajar y si lo quiere cambiar lo podrá modificar.

Ogasun Batzordeko presidentea: adierazi duenez, aurten udal-aurrekontuaren aurkezpenean izandako atzerapenaren arrazoia da Astigarraga Lantzen SA enpresaren Saneamendu Plana idazten aritu direla, eta alde zuzenetatik osoko bilkuraren erabakiak hartu behar izan direla, hala nola kirol-arlo osoa udalera lekualdatzea, instalazioak barne. Hortik aurrera, aurrekontu berria idatzi da, eta Ogasun Batzordean ondo eztabaidatu zuten apirilaren 29ko bileran. PSE-EEko zinegotzia ez zen bilera horretara joan. El presidente de la Comisión de Hacienda: señala que el motivo del atraso este año en la presentación del presupuesto municipal, se debe a que se ha estado redactando el Plan de Saneamiento de Astigarraga Lantzen S.A. y que ha exigido previamente la adopción de acuerdos plenarios como el traspaso al ayuntamiento de toda la materia deportiva con sus instalaciones. A partir de ahí se ha redactado el nuevo presupuesto que fue ampliamente debatido en la Comisión de Hacienda de fecha 29 de abril a la que no acudió el concejal del PSE-EE.

Hamaikabateko zinegotzia: Imanolek adierazi du Korporazioak azken egunera arte gobernatzen duela, eta PSE-EE taldeko zinegotziaren esku-hartzea demagogia merkea dela. Diru-laguntzen

Concejal de Hamaikabat: Señala Imanol que la Corporación gobierna hasta el último día y la intervención del concejal del PSE-EE es demagogia barata. Señala que la reducción de las subvenciones es



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

murriztapena krisialdi ekonomikoaren ondorioz izan dela esan du, udala ere horren eraginpean baitago eta bere aurrekontua egokitu behar izan du.

producto de la crisis económica a la que el ayuntamiento no es ajeno y ha tenido que adecuar su presupuesto.

Alkateak esku hartu du: adierazi duenez, aurrekontu horiek udalaren zerbitzuak eta konpromisoak biltzen dituzte, eta gastu korronteari dagokionez, gastuari eusteko ahalegina ikus daiteke. Horretaz gain, aurrezki garbi positiboa bermatzen da, eta aukera ematen du krisialdian 917.649 euroko inbertsioak finantzatzeko, eta, beraz, 454.614 euroko zenbatekoarekin, azpiegiturak eta urbanizazioak egin ahal izango dira, bosgarren edukiontzia edukitzeko, futbol-zelaiako aldagelak, eta etxebizitza komunitarioen ekipamendua. Betiere, diru-sarrerei dagokienez, aurreikuspenak oso errealistak dira.

Interviene el Alcalde: señalando que estos presupuestos son presupuestos que abordan los compromisos y servicios municipales y que en cuanto al gasto corriente se ve reflejado el esfuerzo de contención del gasto. Además se garantiza un ahorro neto positivo y permite en época de crisis financiar inversiones por importe de 917.649€, de modo que se podrán realizar infraestructura y urbanizaciones por importe de 454.614€, el quinto contenedor, vestuarios del campo de fútbol y el equipamiento de las viviendas comunitarias, siendo por el lado de los ingresos las previsiones muy realistas.

#### **4. Lokal komertzialak etxebizitzetan bihurtzeko udal ordenantza: alegazioak ebaztea**

#### **4. Ordenanza municipal para conversión de locales comerciales en viviendas: resolución de alegaciones**

Alkateak Hirigintza Batzordearen irizpena aurkeztu du. Irizpen horretan honako akordio hau hartzea proposatzen da:

El Alcalde presenta el dictamen de la Comisión de Urbanismo donde se propone la adopción del siguiente acuerdo:

1.- Lokal komertzialak eta zerbitzuetakoak bizitegi-erabilera izan dezaten Ordenantzaren hasierako onarpenari aurkeztutako iradokizunei erantzuna emateko, Udal arkitekto aholkulariak 2011ko martxoaren 30eko datarekin egindako txosten-proposamena berrestea.

1.- Ratificar la propuesta de contestación de alegaciones, presentada a la aprobación inicial de la Ordenanza para posibilitar la conversión de locales de uso comercial en viviendas, redactado por el arquitecto asesor municipal con fecha 30 de marzo de 2011.

2.- Udal aholkulari juridikoak, 2011ko apirilaren 15eko datarekin egindako txostena onartzea, non zenbait mugaketa juridikoak planteatzen dira. Erosteko eskubidea eta atzera eskuratzekoa udaletxeak ez badu aurrera eramaten, honek saltzaileari jakinarazi beharko dio

2.- Aprobar las diferentes determinaciones jurídicas planteadas por la asesora jurídica municipal, en su informe de fecha 15 de abril de 2011, añadiendo que en el supuesto de que el tanteo y retracto no se ejercite por el Ayuntamiento,



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

lokalaren eroslea jakin beharko duela Ordenantza honen baldintzak bete beharko dituela.

3.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu baino lehen, Ordenantzaren Testu Bateratu bat idatzi beharko da.

éste deberá de apercibir al vendedor que el futuro adquiriente del local deberá de cumplir las condiciones de la Ordenanza municipal.

3.- Deberá de redactarse un Texto Refundido de la Ordenanza, con carácter previo a la publicación íntegra en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Irizpena bozkatu ondoren, onartu egin da, aldeko 9 botorekin eta PSE-EEko zinegotziaren abstentzioarekin.**

PSE-EEko zinegotziak adierazi du bere abstentzioaren arrazoia izan dela alegazioak aurkeztu zituela eta batzuk onartu badira ere, guztiak onartu ez direla, eta azpimarratu du oso garrantzitsua dela erkidegoko bizilagun gehienak horrekin ados egotea.

Batzordeko presidentek adierazi du ordenantza horrekin erabilera-aldaketak ahalbidetuko direla, baina beti espekulazioa saihesteko asmoarekin.

**Sometido a votación el dictamen es aprobado con 9 votos a favor y la abstención del concejal del PSE-EE**

El concejal del PSE-EE señala que se ha abstenido dado que presentó alegaciones que si bien algunas se ha aceptado no lo han sido en su totalidad, e insiste en la importancia que la totalidad de vecinos de la comunidad estén de acuerdo con ello.

El presidente de la Comisión señala que con esta ordenanza se va a permitir cambios de uso, pero siempre con la voluntad de evitar la especulación.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2011ko maiatzaren 12an

**Xabin Olaizola Lasa  
Idazkaria**